


Euskal AEko industria-jarduerak % 0,2 egin zuen gora 2016ko ekainean

Ekoizpen industrialaren indizea % 2,1 igo da 2016ko lehenengo sei hilekoan

Eustaten datuen arabera, 2016ko ekainean % 0,2 igo zen Euskal AEko ekoizpen industrialaren lan-egutegiko termino homogeneoetan aztertuta, 2015eko hilabete beraren aldean. 2016ko lehenengo sei hilabeteetako balantzean % 2,1eko hazkundea izan da 2015eko aldi berekoarekin alderatuta.

Urtaro-eraginak zuzenduta, % 1,8 hazi zen Euskal AEko ekoizpen industrialaren aurreko hilabetekoarekin, hau da, 2016ko maiatzekoarekin, alderatuta.



Joera desberdinak izan ditu, ondasunen destino ekonomikoaren arabera, 2016ko ekaineko indizearen bilakaerak 2015eko ekainekoarekin alderatuta. *Ekipo-ondasunek* % 8,0 egin dute gora, *bitarteko ondasunek* % 1,8 behera eta *energia* ere % 9,5 jaitsi da. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 2,9 egin dute behera, hain zuzen ere, *kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 11,6 jaitsi direlako eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 0,9 igo direlako.

Sektoreen arabera, industria-sektore handietan igoerarik handiena *garraio-materialetan* (%12,8) eta *kautxu eta plastikoen sektorean* (%1,2) izan da. Behera egin dute, aldiz, *energia elektrikoa, gasa eta lurrunak* (%10,0) eta *material eta tresneria elektrikoak* (% 8,1).

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-10,0
09 - Kautxua eta plastikoak	1,2
13 - Makineria eta tresneria	0,5
14 - Garraio-materiala	12,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,7
12 - Material eta tresneria elektrikoak	-8,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-8,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka aztertuta, positiboa izan da ekaineko ekoizpen industrialaren indizearen urte arteko bilakaera Araban (% 6,5), baina behera egin du Bizkaian (% 1,7) eta Gipuzkoan (% 1,0).

Hil batetik besterako aldakuntza-tasa, berriz, positiboa izan da hiru lurraldeetan: Gipuzkoan % 2,2koa, Bizkaian % 1,7koa eta Araban % 1,2koa 2016ko maiatzarekin alderatuta.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2016ko Ekaina

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Eka2016 / Eka2015	A(Eka2016) / A(Eka2015)(*)	Eka2016 / Mai2016	Mai2016 / Api2016
Indize orokorra				
Euskal AE	0,2	2,1	1,8	-1,3
Araba/Álava	6,5	9,2	1,2	-1,7
Bizkaia	-1,7	-0,1	1,7	-1,0
Gipuzkoa	-1,0	0,5	2,2	-1,5
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-2,9	-1,6	0,5	-0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-11,6	-6,8	5,4	-2,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,9	0,5	-1,2	-0,2
Ekipo-ondasunak	8,0	9,3	3,9	-2,1
Bitarteko ondasunak	-1,8	0,8	0,4	-0,2
Energia	-9,5	-4,6	-2,4	-2,2

(*) 2016ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2015eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua